



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2007-12-02**

VURTEA 1303.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Seaska, betetzeko prest

VILLABONA Herritarrek eta udal ordezkariak euripean inauguratu zuten Urdapilleta etxe berrituko haurreskola

ESKERRAK Maixel Arrieta alkateak «proiektuan lanean aritu diren guztiei eskerrak» eman zizkien 4



Atzoko inaugurazioan bi umetxo haurreskolaren barnean. N. URBIZU

Gaur egingo dute AHTren inguruko herri galdeketa

ANOETA Atzo 200 lagun inguruk manifestazioa egin zuten herriko kaleetan barrena; ondoren pilotalekuan DVD bat ikusi zuten 6



Herriko kaleetan zehar egin zuten manifestazioan 200 lagun inguru bildu ziren. A. IMAZ



E. EZIZA

ESTANISLAV DOUBRAVA TXEKIARA LEIHOA-REN ARDURADUNA

«Gure txotxongiloek txekiar kultura zabaltzeko balio izan zuten»

TOLOSA Aurten txekiar txotxongiloari ireki diote leihoa Titirijain; Doubrava koordinatzailea da 7

Finala
«lehiatua»
izango dela
uste du Joxton
Olaetxeak

LEITZA Barriolak gaur jokatu duen finala «estua» izango dela dio botilleroak 5

Emozioz
beteriko jaialdia
Laskorain
ikastolaren
40. urteurrean

TOLOSA Usabal kiroldegian bildu ziren ikasle, irakasle, ikasle ohi eta gurasoak 6

Eskubideak saltzen

» Iritzia

Inaxio Agirre Arregi
Ezker abertzaleko kidea

Eskubide nazionalak saltzea, hizkuntz helburuak murriztea eta Euskal Herria euskalduna eraikitzeko boikotari iruditu zait ETB 2-k eman duen eztabaida, Euskararen Legearen hogeita bost urte direla eta. Ikusten ari naizela negargura, tristura eta amorrutzeko sentimen nahasiak bor-borka.

Eusko Jaurilaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuordeak elebitasun soziala helburutzat jo du, eta helburu zehatzgabe eta ilusiozko horren adibiderik ez da munduan. Haatik, ezker abertzalearena, "euskaldun eleaniztuzenez osatutako Euskal Herri eus-

kalduna" lortzea da, bi belaunaldietan. Egoera horretan, hizkuntz erabilera publiko eta ofizialak euskaraz izango dira, eta pribatuak norberak nahi duen hizkuntzan.

Unzaluk "euskara ez da eskubidea, eskubideen artekoa baizik. Jarrera horren atzean PSOEren ohiko jarduna dago: hau da, hizkuntz eskubideak murriztea, sustapen neurriak urritzea eta, noski, gaztelaniaren nagusitasun iraunkorra bermatzea. Baina euskara Euskal Herriaren eskubide besterenduezia eta preskribaezina da. Hori baita modu bakarra euskaraz bizitzeko Euskal Herri euskaldun batean eta munduko hizkuntza aniztasunean; hizkuntza guztien lurraldetasuna errespetatuz, hizkuntza guztiak osantzu bizi daitezkeen; norbere nazio-

hizkuntzan bizi dadin, eta herritar guztien berdintasuna eta duintasuna bermatzeko.

Sailburuordeak 'no imponer el uso' dio. Baina, zergatik inposatzen dute gaztelania egunero Euskal Telbistako 2 kateak eta Radio Euskadik? Zergatik, ari dira gaztelaniaz *El Diario Vasco*, *El Correo*, *El País*, *Marca*, ...? Zergatik, Cadena Ser, Onda Cero, Radio Nacional de España, La Cope? Komunikabideena adibide bat besterik ez da. Berdina esan daiteke, lan munduan, Osakidetzan, Justizian, Ertzaintzan eta ulertzen ez gaituztelako erdaraz egitera behartzen gaituzten askok eta askok. Noiz arte jarraituko dugu horrela?

Salamanca (Espainia) jaio berri den haurrari ez diote gaztelaniarik inposatzen, hezkuntza sis-

temak sarbide soziokulturala errazten eta bizitzaroko ezinbesteko tresna eskaintzen baizik. Euskaraz, zergatik ez da berdin kontsideratzen? Gaztelaniarentzat eta frantsesarentzat ona dena zergatik da txarra euskararentzat? Zergatik, kultur fobia hori? No imponer ez du esan nahi neutraltasuna Euskal Herrian, Espainia eta Frantziako mendeetako zapalkuntza historikoa jarraitzea, euskararen egoera minorizatua iraunaraztea eta euskararen normalkuntza osoa ukatzea baizik. Euskal Herri euskaldunaren lortzen demokratikoa eragoztea da.

Sailburuordeak ezker abertzalearen muturreko jarrera aipatu du eta Alderdi Popularrarenarekin berdindu. Ez da muturreko jarrera, arazoan sustraietara jotzea baizik arazoa elikatzen duten auziak konpontzeko. Hori egin ez delako, hogeita bost urte ondoren, Jaurilaritzak bere 2005

eta 2009ko egitasmoan zehaztu dituen joera negatiboak azaldu dira: Euskararen erabilera urria eta guztiz irregularra da, euskaldunak bakarrik hartuz gero, euskararen erabilera behera egin du, ezin da euskararen geroa bermatutzateman. Horrek esan nahi du euskara galtzeko arriskua benetakoa dela.

Hizkuntzen erabilera soziala hizkuntz politikaren ondorioa da, hizkuntz politikaren oinarria ofizialtasuna da, eta ofizialtasunaren euskarria legea da. Baina munduko herritarren, herrien eta hizkuntz komunitateen arteko berdintasunaren printzipio unibertsalaren ondorioz, euskal herritarrok eskubidea dugu euskara Euskal Herriko hizkuntza ofizial bakarra izan dadin, Europako estaturen hogeiki hizkuntza ofizialek duten pareko ofizialtasunarekin, maila politikoan, juridikoan eta soziolinguistikoa.

Errepresioa eta errepresio gehiago

» Iritzia

Iker Otermin

Errepresioa eta errepresio gehiago. Estatu espainiarrek azken hilabeteetan aurrera eramaten ari den errepresio bortitzak argi bezain gordin uzten du agerian, Estatu aparatuko ahal dituen arma guztiak erabiltzeko prest dagoela bere interesen aurka ailtzatzen den edozein ahots zapaltzeko.

18/98 deituriko prozesua oso ondo definitu du Askatasunak "Burgosko prozesuaren oinarri juridiko nahiz politikoa berdinak dituen epaiketa" bezala. Azken batean "trantsizio" bezala saldu zuten baka, "anaien" arteko laguneratzea, zapalkuntzaren amaiera eta "demokraziaren" be-

rrezartzea, argiago dago urteak pasa ahala, funtsean, bere edukia gezur mordoia zirela.

Oinarritzko eskubide demokratikoen aurka jasaten ditugun erasoak ez dira gutxi gaur egun Euskal Herrian. Hasi biltzeko eta antolatzen eskubideetik, bologna plana ikasleon eskubideetan, lan prekarietatea eta esplotazioa langileon eta batez ere gazteon eskubideetan, emakumearen zapalkuntza bai familia bai lantegian, etxebizitzarena, Abiadura Handiko Trenaren inposaketa. Hauek guztiak gure gurasoek trantsizio garaian, aiton amonek Gerra Zibileko iraultzan, eta gure arbasoek joan den mende hasieran egin zituzten borroketan aldarrikatzen zituzten aldarri berberak dira oinarrian. Zer gertatzen da ordea? Zergatik eta zertarako borrokatu behar dugu gaur guk, gure arbaso-

ek bizia eman zuten funtsezko eskubide horien alde? Zer dago oinarrian?

Erantzuna kapitalismoan datza dudarik gabe, estatu kapitalista eta produkzio baliabideen jabetza pribatua izan dira borroka horietatik orain arte (ez kinka larriaren egon gabe) airoso ateratzen direnak. Kapitalismoa bere dekadentzia aroan giza garapenaren aurka borrokatzen kondentaturik dago, biziraun nahi duen sistema degeneratu gisa.

Beharturik dago krisi ekonomikoak jasatera, espekulatza, deslokalizazioak aurrera eramatera, naturako baliabideak irabazi pribatuen alde suntsitzera, langileak ahal bezain gehien esplotatzera, diru publikoa pribatizatza, interes pribatuaren alde merkatu eremuaren basearen armak eta errepresioa erabiltzera bai eta nazioei

eskubide demokratikoak ukatzera ere. Trantsizioan burgesia kinka larri batean zegoen, gure eskualdean bezala maila internazionalen ere langile klasea bere eskubideak defendatzeko borrokan irteteko eta dena emateko prest baitzegoen. Burgesiak mugimenduak armen bidez kontrolatu ezinik estrategiaz aldatu eta zertxobait ematea erabaki zuen atzo esku batekin ematen duena bihar bestearekin kentzen du, ez dago eskubide demokratiko absoluturik bermatzerik kapitalismoan.

Azken eraso honek Eusko Alderdi Jeltzalearen papera ere erakutsi digu berriz, Iñigo Urkulluk epaileen zati batek hartzea erabaki duen bide ilun bezala kalifikatu du, demokrazia asentatu baten antzeko episodio bezala eta ber-

tan Prozedura Kriminalaren Legea betetzen ez duten irregulartasunak omen daude, prozedura juridial independente bat balitz bezala, alegia. Hitz hauekin eta Eusko Alkartasuna eta Nafarroa Baienekin argi ikusten da horrelako erasoen aurrean eta partiduen legearen aurrean, Espainiako gobernuak lan zikina egiten dieten bitartean, hauek hitz politik esateko gauza direla baina oinarrian berriz hurrengo eraso batek beraien babesasoko dutela.

Errepresioaren aurka borrokatzeko modu bakarra masen borroka bidez erantzutea da, langile klasearen indarrak batu eta metodo iraultzaileen bidez erantzutea. Garrantzitsua da mobilizazioan ahalik eta indar gehien biltzea eta langile klasearen potentzial ikaragarrian konfiantza izatea.

@ Eztabaida. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK eztabaida desberdinak planteatzen dizkio irakurleari. Sartu gure webgunean eta eman hauen gaineko zure iritzia. Aktualitatean pil-pilean dauden gaiak lantzen ditu eta eskualdean garrantzia duten gaiak. Hitzak plazaratu duen azken eztabaida, esaterako, hau da: «Espainiako Auzitegi Nazionalak '18/98 auziko' 46 lagun atxilotzeko agindua eman du; Joxe Mari Olarra billabonatarra eta Mikel Egibar zizurkildarra dagoeneko atxilotu dituzte. Nekane Txapartegi asteasuarraren bila ere bi aldi sartu dira bere etxera. Zer iruditzen zaizu?». Sartu gure webgunean eta eman gain honi buruzko zure iritzia.

www.tolosaldeko hitza.info

Agur!



» Uzturretik

Amaia Agirre

Nire begirada eta arreta lehenagotik bereganatu zituen arren, duela bi urte eta erdi inguru arte ez genuen aurrez aurreko ha-

baina bai elkarren osagarri, eta hori ederra da. Hartu-eman bat izan den arren, jaso dudana eman dudana baino gehiago izan da, baina ni ere saiatu naiz nire iritzia emateaz gain eskatzen zidan neurrian nire hondar alea jartzen. Ardi batek ez du artalderik osatzen, baina artzai on batek mila ardi goberna ditzake, eta horretan dihardu geroztik orain arte bidelagun izan nauen honek ere. Den bezalako delako, eta jende aurrean ibili biharrek dituen arriskuak direla medio, kritika bat baino gehiago egin izan diot,

baina kritika eraikitzaileak izan dira. Barka diezadala inoiz mindu badut. Gozoa estimatzeko gazitik ere probatu behar da, ezta?

Tira, zer esango dizut, bada, gehiago? Igandetako hitzordura ez naiz gehiago azalduko, baina oroituiko naiz zurekin. Izango duzu ni gabe ere nork bisitatu eta nork asebate. Izango duzu kontuak nork kontatu. Gailurrera eraman ninduzun, eta Uzturretik kontu-kontari jarri, baina bidezi-dorretan barna galdu nahi dut orain, ados? Bidaia on zure ibilbidean eta berriz gurutzatu arte. Aio Tolosaldeko Hitza! Aio irakurle! Nahi duzun arte!

Lehen eta orain



Hogeita bost urte, hamaika istorio

TOLOSA • Zazpi partaiderekin hasi zen, 1983. urtean, Titirijai jaialdia. Zazpi talde hauek (Andaluzia, Gaztela Leon, Katalunia, Euskadiko bi, Valentzia eta Suitza) zazpi ikuskizun eskaini zituzten eta 21 emanaldi. Guztira 7.600 ikuslek bisitatu zuten Tolosa urte horretan. 25 urte beranduago,

2007an, 26 taldek hartu dute parte, 28 ikuskizunekin eta 152 emanaldirekin. Tarteen hamaika oroitzapen, hamaika une gogor, hamaika une gozo, eta nahi bakar bat, Tolosa txotxongiloen gune bilakatzea. Zorionak horretan lanean aritu zareten guztioi. TOLOSAKO EKINBIDE ETXEA/1 TERRADILLOS

Tolosako atzoko azokan aipagarriena, barazki sorta zabala

Azoka » Aza, azalorea, bruselaza, romaneskua, ... bezalako barazkiak salgai izan ziren

PABLO ALBERDI

Atzoko hotzak eta eurik animoak zertxobait apaldu zituzten Tolosan. Goizeko lehenengo orduetan azokako bizitasuna ez zen aipatzeko izan, baina goiza aurrera zihola, giroa berotzen hasi zen, eta egurdialdera jende dexente gerturatu zen.

Neguko espezie ugari

Atzoko azokako eskaintza, batez ere barazkiarena, aipagarria izan zen. Neguko espezie asko ikusi genituen, eta aipatzekotan, gardua nobedade bezela eta brassicacea” familiko espezie ugari ikusi izan ziren. Aza, azalorea, bruselaza, romanesku aza edo eta brokolia bes-teen artean.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza		
Landina	10,00	-
Ziklamena	5,00	2,00
Xarbota	4,00	6,00
Erromeroa	4,00	6,00
Txinatar krabelina	2,50	-
Siemprevivas	6,00	-
Gerbera	12,00	-

Bertako produktuak

Ziza horia	20,00	-
Gamuza	14,00	-
Errezil sagarra	1,50	-
Intxaurra	2,50	4,00
Gaztaina	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Urrak	2,00	3,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak	2,40	-
Aza	2,50	3,00
Arroza	1,90	2,00
Ahuntz gazta	3,00	-

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

MARIA LUISA LASA OTERMIN

Abenduaren lehen hil zen, 42 urte zituela.
-Goian bego-

Bizitzari, zaitasunei, nola aurre egin behar zaion a zer erakustaldia eman diguzun.
Betirako gure bihotzetan izango zaitugul!

Gero arte, izekol!
Akuia aldeko ilobak

Hileta elizkizunak bihar, astelehena, hilak 3, arratsaldeko 18:00etan, Tolosako Santa Maria parrokiari. Aurrez esker mila.
Oharra: Hil-beila Tolosako tanatorioan egongo da, bihar goizeko 10:30ak arte



TOLOSA
2007ko
abenduaren 2a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Urdapilleta etxe berriak atek ireki ditu, Seaska haurreskolarako

Villabona » Maixabel Arrieta alkateak herritarrekin batera inauguratu zuen eraikin berria europian.

«ohore bat izan da dene haurreskola, hezkuntzarako espazio moderno eta erakargarri hau erakustea. Urte askotan eragile desberdinen lan eskerriari esker izan da posible».



Maixabel Arrieta alkatea zinta moztuko momentuan. Eskuinera parkea atzean, jendea lurdi-ean. A. LARRAZU

NEREABIZBU

Villabonako 163 txiroenok hadute haurreskola berria, atzoko inaugurazioaren ondoren. Maixabel Arrieta alkateak herritarrekin batera haurreskola atek ireki zituen atzoko egun eurisuan.

Alkatetaren parte, eskerrak
Aldi berean, alkateak eskerrak eman zituen «egitasmo hau posible egiten duten gurtietatik aurrera korporazioari, Partzuergoari, irakasketa berriko langileei, gurasoei, gaurko eta atzokoek, eta etorkizuneari izango direnei».

Joxe Mari Olarra ere gogoan
Ondoren, herrogegun oriotutako Joxe Mari Olarra hillabonatarra ere gogoan izan zuen besarkada bat gortze eta «haurreskola honetako guraso» izan dela gogoratu.

Haurreskolako inaugurazioarako
Udako luntza prestatu zuen, parkearen ondoko gelan. Musika ere izan zen girotzeko. Bertan hainbat zinegotzi izan ziren, gurasoei eta hurbildutako haurreskolak dauden tokoak erakusteko eta zailak argitzea, besteak beste.

Atzoketaren aurkako pankarta
Villabonako haurreskolaren inaugurazioan parte hartu zuten, europian, eta bertan alkateak eskerrak eman ondoren zinta moztu zuen.

ELEKTRIZITATEA
Euskal - Herria, 27
IBARRA
Tel. 943 67 32 80

Euskararen eguna

Abenduak 3
Antzerkia
LEDOIK
Astelehena
Zerbitzua
antzerki taldearen
Hamalako koloretan
dantzan
19:30
Santia zian

Abenduak 5
Afarria
Luturre sagardotegian
21:00
Ondoren hitzaldiak
Santia talde
Ritua ikasleentzako
Tokiak: 19:30
Ereko eta 22:00
Ereko eta 22:00

Hitzaldi-erabakia
19:30
• Hitzaldi dibertsitate berriaren eragina hitzaz gertutik normalizazio prozesuan.
Hitzaldi: Xabier Sarrate
• KUPSEFI Inmigratzaileen Euskar Berriaren zuzendaria kide 2003az geroztik.
• Sentimenduak
Hitzaldi: Enrike Larrea II
Hitzaldi: Joseba Antzuategi
Antzuategiaren Aitorburu
Hitzaldi: Iñaki Irujo
Normalizazioaren Arduradun
Berriena.
Galdere tranda.

denda



Ametsetarako hitzak

ipuinaren majan izkatzen den euskal idazleen liburua...
15 €

eskura ezazu
Durangoko Azokan,
HITZAREN postuan
(Barrenkale, 73)

HITZAREN produktuak salgai

2 sarrera pare
zozketatu ditugu

Irabazleak:

- Migel Mari Aurkia (Berastegi)
- Amalia Larrarte (Villabona)

Abenduak 3, astelehena 16:30etan • Tolosako Beotibar pilotalekuan

HITZAREN harpideduntzat abantailak



Arruti - Merino I
EUGI - NALDA III
OLAZABAL - GOÑI III
Larralde - Arizmendi
Cabrerizo - Urberuaga

Sarrerak leihatlan bertan izango dituzak.

Joxton Olaetxea botilerok finala «lehiatua» izango dela uste du

Leitza » Barriolok Titinen kontra dauka final handia gaur eta Olaetxeak final estua izango dela adierazi du.



Euriarekin errebotte saiorik ez

VILLABONA » Villabonako Behar-Zana elkarteak II. Errebotte Eguna antolatu zuen, baina ez zuten dena egiten izan. Donibane Loitzunetik pilotariak etorri ziren baina ezin izan zuten jokatu, euriarekin pilotak zortzaz gain, arriak ere beldak. Hala, gaitzetxoek fronto txikiak jokatu ahal izan zuten. Ondoren bazkaria egin zuten denek. A. LARRAZU

EREBAZKIDIA

Joxton Olaetxea, Abel Barriolaren botilerok gaurko Titinen eta Barriolaren arteko finala «lehiatua» izango dela esan du. Olaetxea partidak hurrentzen diren egotan da Barriolaren partidak aurretik elkarren da, hize egiten dute noski, baina Olaetxea ere gurtirik bizi izan du bilakara hori Barriolaren. «Bekelak ere gurtirik izusi zuten eskualdean. Orain, baina, askos sendogoa da buruz. Adinak ere eragina du, heldutasunak, baina eskua sendatuz ziztatzenetik konfiantza hartu du. Lehen hamargarren tantorako minak bekurra sotrazten zion, orain, berriaz, azken tantora arte egiten du borroka».

Txin Magoa Gurea Antzokian
Gurea Antzokian haurreskola inauguratu aurretik Txin Magoren sasoia izan zen. Gurea Antzokia haurrei eta gurasoei bote zion, eta bertan zirenek magaz gozotzeaz gain barre ere egin zuten. Txin Magoren bar edo beste izututa atera zen, egunakooz maekoa, algerak izutu zaitelako baitak.

Herriko haurren parte-hartzea
behar izan zuen Txinok eta magi sasoiek, hondakikolearen eta busmin irabazi zuen.

Txin magoa, umeen laguntza...

Ni Gipuzkoa naiz.

Guztiz gora Gipuzkoa.
Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoak hobeak izateko pausok emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.

2007/2011 Kudeaketa Plana

Irargarki laburrak

SALGAI

- Etxebizitza.** Adunak, 70 m²ko etxea, 25 m²ko atikorekin. 608.575.900.
- Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumard Txikiaren parean (Santa Klara), 2 logela, sukalde handia, garbaira eta berogailuak. Hormigoizkoak. Urturre aldea Iruspegiak. 665.70.8635.

LANA

- Sukaldaria eta zerbitzaria.** Sagardotegiako, sukaldari eta zerbitzari lanetarako pertsona bat behar da. 660.65.43.17.

GIPUZKOA
zurekin, aurrera



'18/98'-ko atxiloketak salatuz

POLITIKA • 18/98 auzia dela-eta herenegun egindako atxiloketak salatzeo manifestazioa egin zuten atzo Villabonako kaleetatik barrena. Gaur berriz, eskualdean gauzatzen ari diren ekimenekin jarraituz, Amezketako plazan, 12:00etan elkarretaratzea egingo dute ezker abertzaleak deituta. Hau «Bilboko manifestazioa joateko aukera ez dutenentzat» izango da. NEREA URBIZU



Laskorain ikastolako jaialdiaren uneetako bat. ESTI EZEIZA

Laskorain, hezkuntza eta euskalgintzan 40 urtez lan eta lan

Tolosa » Atzo ospatu zuen ikastolak bere 40. urteurrena; jende ugari bildu zen Usabal kirodegiko jaialdian.

ESTI EZEIZA

Laskorain ikastolari belarritik heldu, eta gogoz tiratzeko eguna zen atzokoa. 40 urte bete baititu Tolosako ikastolak. Atzo, egun handi hori ospatzen izan ziren bertako irakasle, langile, ikasle, guraso eta

ikasle ohiak, besteak beste. 40 *emozio urte* bezala izendatu zuten atzoko jaialdia antolatzaileek, horrela laburbiltzen baitute igarotako ibilbidea.

19:00ak aldera hasi zen jaialdia eta bertaratutako guztiak izan ziren protagonista. Ekitaldien artean, musika ez zen falta izan, Juan-txo Zeberio, Jon Arruabarrena, eta Josu Gabellanes izan ziren besteak beste. Baita Laskorain abesbatza eta Ikastolako abesbatza ere bai. Horiez gain, eguneko gonbidatu berezia Natxo de Felipe izan zen.

Zizurkilen ostalaritzan lan egiteko jendea behar da.

**Interesatuak dei dezala
606 815 000 zenbakira.**



AHTaren aurka hainbat ekimen

ANOETA • Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak, Anoetako Gazte Asanbladak, Anoetako ezker abertzaleak, Segik, LABek antolatutako biharko herri galdeketa-kin lotuta, atzo manifestazioa egin zuten herriko kale-

etan barrena. 200 lagun inguru bildu ziren Anoetako ekitaldian. Manifestazioaren ondoren, denak frontoira zuzendu ziren, bertan AHTaren inguruko DVD bat ikusi zutelarik. ASIER IMAZ



Musean fin, arkumea etxeratzeke

LARRAUL • Enbido... Ordago!... Eutsil! Horiek izan ziren atzo gehien entzun ziren hitzak Larraulgo Katillu Txulo elkartearen Orotara zortzi bikote lehiatu ziren mus txapelketan, denak ere arkumea etxera eramateko

gogoz. Gaur berriz, 09:30ean elkartuko dira herriko mugarrak ezagutzeko. 16:00etan pilota erakustaldia izango da. 16:30ean, erakusketa. Amaizteko talo eta gaztain jatea Katillutxon. NEREA URBIZU

Durangoko Azokara txangoa

Egun pasa ederra Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara



Abenduak 6

Saheurtze 10 euro, Barrioak 8 euro

Tolosa 10:00
Villabona 10:10
Andoain 10:20
*Itzulera: 19:00tan Durangotik

RENFE
Olaederra
Txistoki

galtzaundi



Ikem errota eta urdaitza: Galtzaundiko bulegoa. 943 655 004

E Elkarrizketa

ESTANISLAV DOUBRAVA ▶ Txekiar txotxongilora leihoa ekimeneko koordinatzailea

«Txekiar kultura zabaltzeko balio izan zuten»

Tolosa ▶ Aurtengo edizioan Txekiar txotxongiloari ireki diote leihoa; honen koordinatzaile izan da Stanislav Doubrava.

ESTI EZEIZA

Txekiar Txotxongilora leihoa ekimena hiru zatitan dago banatuta. Alde batetik, mahaingurua egin zuten, bestetik, bost txotxongilo taldek hartu dute parte Titirijain, eta azkenik, Aranburu jauregian ikusgai dagoen erakusketa. Honen guztiaren koordinatzaile izan da, besteak beste, Stanislav Doubrava. **Nondik sortu zen aurtengo leihoa Txekiara zuzentzeko ideia?** Hau Tolosako jaialdiaren ardurdunen ideia izan zen leihorena. Duela urte asko hasi zen ekimen honekin, bere helburua txotxongiloek nazioartean nolabaiteko eragina izan zuten herrialdeetara irekitzea izan zen. Honekin, tolosarrak eta ikusleak beste herrialdeetako txotxongiloak hurbildu nahi dizkiete.

Zeintzuk dira txekiar txotxongiloaren berezitasunak?

Txekiar txotxongiloak garrantzitsu egiten dituen berezitasuna da tradizioz, oso finkatua dagoela. Esaterako, erakusketan, 24.000 urte dituen txotxongilo bat ikus daiteke. Bestalde, barroko garaian, lehen txotxongilo taldeasortu zen, eta hortik aurrera, garatuz joan zen. Halaber, hango txotxongiloen berezitasunetako bat da, buruari lotuta, euskarri nagusi gisa buruzko alanbre bat daukate eta gero, besoak eta hankak mugitzeko, hariak dituzte.

Zein da horren tradizio sendoa izatearen arrazoia?

Alde batetik, antzerki ibiltariak. Hauek herriz herri joaten ziren, kultura hori zabalduz. Txekiar kultura zabaltzeko oso garrantzi-



ESTI EZEIZA

tsuak izan ziren hauek. Izan ere, Txekiar pertsonaia historiko eta herrikoiei buruz hitz egiten zuten beraien emanaldietan. Horren adibide da *Gaspar*, hau Txekiar errepublikako pertsonai garrantzitsuenetako bat baita. Pertsonai hauek modu barregarrian aurkezten ziren, haurrek ezagutu zitzaizten. Txotxongilo antzerki ibiltariak herriarrak ilustratzeko balio izan zuten. Orduan, Alemaniako errejimeneren menpe zegoen herrialdea, eta saio hauekin, txekiar kultura eta hizkuntza zabaltzea lortzen zuten. Gainera, saioak

umei zuzenduta zeudenez, ez zuten errejimeneren indarrek ez zuten kontrolatzen, askatasun gehiago zuten.

Zein balditzek ahalbidetu dute txekiar txotxongiloaren sendotzea?

Jende asko erakartzen zuen txotxongiloen munduan, arte gisa beharrez, bizibide gisa ikusten baitzuten, zerbaitez garrantzitsuago bezala. Modernitateira iritsi arte, ez da arte bezala izendatu. Eskultore, harotz eta abarrek, mundu hau irabazbide eta lanbide izan zitekeela ikustean, denak inguratu ziren.

Hala, txotxongiloak eratzten hasi ziren, herriz herri ibiltzen ... Bestalde, harridura handia sortzen zuen jendearengan, bakarrak mugitzen ziren panpinak ikustea eta entzutea.

Zeren inguruan mintzatzen ziren antzezlan hauek?

Oro har tradizioko istorioak ziren, belaunaldiz belaunaldi igarotzen zirenak. Bestetik, ipuin asko kontatzen ziren, heroienak, printze eta printzesenak, Turkiaren aurkako gudenak... Ez ziren istorio erreala, asmatutakoak.

Aurtengo jaialdian Txekiar errepublikako bost taldek hartu dute parte, zergatik aukeratu dituzue hauek?

Txekiar Errepublikan egun egiten den lanaren alde ezberdinak erakutsi nahi izan ditugu. Alde batetik, ibiltariak ekarri ditugu; bestetik, iraukorrak; eta ezkenik, erdi profesional erdi amateurrek direnak. Azken hauen ordezkari gisa Naive eta Alfa taldeak etorri dira. Hauentzat bizibidea da txotxongiloen mundua. Bestalde, iraukorrekoek, antzoki bat dute, eta beti bertan aurkezten dituzte beraien obrak. Honez gain, aukeraketa kontutan hartu dugun beste ezaguriari bat, ulergarriak izatearrena da. Hau da, hitz gutxi eta gaztelaniazko hitzak erabiltzen dituzten obrak ekartzen ahalegindu gara.

Nola ikusten duzu Tolosako Txotxongilo jaialdia?

Txotxongiloen munduan, nazioarte erreferente da Tolosa. Idoia Otegi eta Miguel Arretxek egindako lanari esker.



Armiarmen pare Oargiko paretetan

TOLOSA ▶ Jende ugari bildu zen Oargi elkartearen, II. Boulder Txapelketa ikustera, nahiz parte hartzera. Eskalatzailak elkarte barruan dagoen rodomoan barrera igo ziren. Batzuk lehendabizikoan lortu zuten sapaia irigotzea, beste batzuk berriz, amore eman zuten. Hala ere, denek jaso

zizuten bertaratu zirenen animo oihauek eta txaloak. Proban, lau minuturen baitan, paretaren alde ezberdinetatik igo behar zuten. Orotara, hiru aldiz. Lehiakideek parte hartu aurretik gelaren kanpoan itxaroten zuten, beraien txanda iritsi arte. NEREA URBIZU

Z Zurea da hitza



Euskara eguna ospatuko dugu bihar Amezketako Zumadi eskolan

ZUMADI ESKOLA

Euskararen Eguna bihar da eta Amezketako Zumadi eskolan jaialdia egingo dugu. Ekitaldiei 15:00etan emango diegu hasiera eskolako musikako gelan.

Biharko eguna ospatzeko, bertako ikasleek prestatutako abestiak, esaera bitxiak, ipuin kontaketak, nahiz bertsoak entzuteko eta ikusteko aukera izango da. Zumadi eskolara haurren gurasoak joateaz gain, herritarrak ere agertzea nahi genuke jaialdi hau ilusio handiz prestatu baitugu: gure aldetik, gonbidapena luzatu dizuegu. Gu ikusteko gogorik bai al duzue? Animatu eta azaldu.



14°
8°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA 14°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Anoeta.** 9:00etatik 20:00etara herri galdeketa AHTri buruz; 10:00etan txistulariak; 10:30ean pilota partiduak frontoian; 11:30ean sagardo dastaketa eta kantu kalejira; 14:00etan bazkaria Kuku elkartearen eta gero Ainhoa Ansaren kantaldia; 17:00etan dantzariak.
■ **Leaburu.** Abenduaren 13an Santa Luzia azokara joateko irteera. Izen-ematea, Txaramako kultur osasun gunean eta udaletxean
■ **Tolosa.** Oargik Pirinioetara irteera antolatuta du abenduaren 6tik 9ra. Perdido eta Marbore mendiak igoko dituzte. Izen-ematea, 637 830380an.
■ **Lizartza.** Gaur 10 urte betetzen dira Koldo Alaña kartzelan dagoela. Ekitaldia egingo dute: 11:30ean pilota partidak, ondoren ekitaldia plazan, dantzariak eta musikaldia. 14:30ean, bazkaria elkartearen.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Bihar, Ikuspegiko Xabier Aierdi eta Hirukideko Joseba Antxustegietxarte hizkuntz aniztasunaz eta hizkuntzaren erabileraz ariko dira Kultur Etxean 19:30ean, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, Ereitek antolatuta.

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Titirijai: Belgikako De Spiegel-en *Dragoi gorria* Gorosabelen 12:00etan eta 17:30ean; Aragoiko Teatro Arbole-ren *Los tres cerditos* Bonberenean 12:00etan; Belgikako Taptoe-ren *Fly Leidorren* 17:00etan eta 19:00etan.

Antzerkia

■ **Tolosa.** *Hamaika koloretan dantzan* antzezlan Leidor aretoan 17:30ean, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta. Sarrera doan.

Irteerak

■ **Villabona.** Jubilatuta elkarteak Harora (Errioxa) irteera antolatuta du abenduaren 12rako: hamaiketakoa Agurainen, Jimeleoren likortegia bisitatu, bazkaria jubilatuta elkar-

tean eta Gasteizera bisita. Izen-ematea, jubilatuta elkartearen.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea,

7.112.

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreokalea, 2. 943 670128.

BIHAR

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25.112.

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 673649.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunikuzinik.



POLICLÍNICA GIPUZKOA, BETI AURRETIK.

Policlínica Gipuzkoan lidergo bokazioa dugu. Hori dela eta, kirurgia-erakin berriarekin gure zerbitzuari beste bultzada handi bat eman diogu.

Bertan gure antolaketa eta protokoloak ahalik eta gehien optimizatzeko aukera izango dugu, gure erantzun-baliabide guztiak eta gure gaixoei zuzendutako arreta sustatzeko sortu bait da. Policlínica Gipuzkoako kirurgia-erakin berriak gure osasun-zerbitzua sendotu, osatu eta hobetu egiten du.

Beste behin, Policlínica Gipuzkoa, zerbitzu mediko pribatuko buru da, bai Gipuzkoan, bai Euskadin ere.

POLICLÍNICA GIPUZKOAKO
KIRURGIA-ERAIKIN
BERRIA
9.000 m² gehiago

TEKNIKA MEDIKO
AURRERATUENETARAKO



INTEGRATUTAKO 12 OPERAZIO-GELA
2 ERDITZE-GELAKO. OBSTETRIZIA-UNITATE 1
ZIUKO 14 GELA
ANESTESIA ONDOKO ERREKUPERAZIOARAKO 15 POSTU
18 GELAKO EGUNEKO OSPITALEA

R.P.S. 230/07

A Agurrak



Urte askoan!

Maria Ansa Peña (Anoeta).
Bihar 2 urte. Zorionak bitxo!
Familia guztiaren partetik.



POLICLÍNICA GIPUZKOA

más para tu salud
zure osasuna, gure ardura

www.policlinicagipuzkoa.com

TEL.: 943 002 800